

HERRI-DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA

CONSEJO VASCO DE FINANZAS PÚBLICAS

Vitoria-Gasteiz, 15 octubre de 2020ko urriaren 15a

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluan landu diren gaien artean hauek azpimarratu behar dira:

EUSKO JAURLARITZAK HERRI-DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUAN IZANGO DUEN ORDEZKARI BERRIAREN AURKEZPENA

Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailburua da Eusko Jaurlaritzaren ordezkari berria.

2020-2021KO AURREKONTU EGOERARI ETA FINANTZA JASANGARRITASUNARI BURUZKO ERAKUNDE ARTEKO AKORDIOA

EAErako aurrekontu egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako helburuak adosten zituen 2020ko irailaren 30eko CMCEaren ondoren, orain defizit helburu bateratuen lurralde banaketa adostu da hiru Foru Aldundien artean, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako onartu diren ekarpen koefiziente horizontaletan oinarrituta.

(EAEko BPGren ehunekoetan)

2020	2021
-0,9 (595M/€)	-0,8 (588M/€)

ZERGA ITUNDUENGATIKO DIRU BILKETAREN ITXIERAKO AURREIKUSPENAK 2020

Zerga bilketaren aurreikuspen horiek egiteko, 2020ko abuztuko bilketa metatua (aurreko urteko epe berarekin alderatuta, %16,6ko jaitsiera izan du) eta urteko azken lauhilekorako egindako proiektzioak hartu dira kontuan, eta baita hiru Foru Aldundiek pandemia eragiten ari den inpaktu ekonomikoa arintzeko hartu dituzten zerga arloko neurriak ere. Testuinguru horretan, 2020rako zerga itunduen bilketaren aurreikuspenak 13.411,6 milioi eurokoak dira. 2020. urterako bilketaren itxierako aurreikuspenak %13,3ko murrizketa erakusten du, eta termino absolutuetan 2019an bildutakoa baino 2.058 milioi euro gutxiago erakusten ditu.

PREVISIÓN DE CIERRE TRIBUTOS CONCERTADOS 2020/ 2020KO ZERGA ITUNDUEN ITXIERA-AURREIKUSPENA				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL / GUZTIRA
IRPF / PFEZ	848.800.000	2.898.500.000	1.862.700.000	5.610.000.000
I. SOCIEDADES / SOZIJETATEEN g/Z	139.650.000	496.500.000	169.400.000	805.550.000
IVA / BEZ	805.674.130	2.495.262.410	1.650.963.460	4.951.900.000
I. ESPECIALES FABR. Y EL FABRIK. eta ELEKTR. Z. BEREZIAK	215.518.928	667.486.096	441.634.976	1.324.640.000
RESTO TRIBUTOS / GAINERAKO ZERGAK	103.554.820	346.942.740	269.002.440	719.500.000
TOTAL / GUZTIRA	2.113.197.878	6.904.691.246	4.393.700.876	13.411.590.000

ZERGA ITUNDUENGATIKO DIRU-BILKETAREN AURREIKUSPENAK 2021ERAKO

Zerga itunduen bilketak 2021erako aurreikusitako ekonomiaren hedapenarekin bat egingo duela espero da, eta horrela, 2021ean Foru Aldundiek itundutako zergen bitartez guztira 14.250 M/€ bilduko dituztela kalkulatzen da, hau da, 2020ko itxierako bilketa baino %6,3 gehiago.

PREVISIÓN RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS 2021 / 2021KO ZERGA ITUNDUEN AURREIKUSPENAK				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL / GUZTIRA
IRPF / PFEZ	896.500.000	2.945.000.000	1.843.400.000	5.684.900.000
I. SOCIEDADES / SOZINETATEEN g/Z	127.800.000	522.000.000	194.000.000	843.800.000
IVA / BEZ	894.030.180	2.771.934.510	1.845.935.310	5.511.900.000
I. ESPECIALES FABR. y ELEC / FABRIK. eta ELEKTR. Z. BEREZIAK	235.926.388	731.488.166	487.125.446	1.454.540.000
RESTO TRIBUTOS / GAINERAKO ZERGAK	105.269.660	371.166.870	278.496.470	754.933.000
TOTAL / GUZTIRA	2.259.526.228	7.341.589.546	4.648.957.226	14.250.073.000

2021EKO KOEFIZIENTE HORIZONTALAK ETA FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGINGO DIZKIOTEN EKARPENAK

Foru Aldundiek Erakunde Erkideei egindako ekarpenei dagokienez, guztira 9.619 milioi euroko zenbatekoa adostu da 2021erako, ekarpen koefiziente horizontal hauen arabera: %16,22 Arabarako, %50,29 Bizkairako eta %33,49 Gipuzkoarako. Zenbateko hori 2020. urterako aurrekontuetan jasotako ekarpenak baino 854 milioi gutxiago da, gutxi gorabehera.

APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES AL GOBIERNO VASCO EN 2021 2021ko FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK				
				€
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2021ko Ekarpn- Koefiziente horizontalak Coeficientes horizontales de aportación 2021	%16,22	%50,29	%33,49	%100,00
2021ko EKARPENAK APORTACIONES 2021	1.560.222.873	4.837.460.439	3.221.446.612	9.619.129.924

2020RAKO EGOKITZAPENERAKO FUNTS OROKORRAREN ZEHAZTAPENA

Egokitzapenerako Funts Orokorraren 2021erako aurreikuspena 122,7 M/€-koa da. Funts horren %70,04 Euzko Jaurlaritzak finantzatuko du, eta gainerakoa, %29,96, Foru Aldundiek.

Funts hori Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean banatuko da. Lurralde historikoei 35 m/€ eta 88 m/€ inguru dagozkie, hurrenez hurren.

FONDO GENERAL DE AJUSTE 2021 2021ko EGOKITZAPENERAKO FUNTS OROKORRA

		€
GOBIERNO VASCO EUSKO JAURLARITZA	%70,04	85.909.926
DIPUTACIONES FORALES FORU ALDUNDIAK	%29,96	36.748.449
Araba / Álava		5.960.598
Bizkaia		18.480.795
Gipuzkoa		12.307.056

TOTAL	GUZTIRA		122.658.375
-------	---------	--	--------------------

Distribución Fondo General de Ajuste Egokitzapenerako Funtz Orokorren banaketa		
	Araba / Álava	34.682.592
	Gipuzkoa	87.975.783

GIZARTE ZERBITZUEN ZORROAREN ERAKUNDEEN ARTEKO FUNTSA

2021eko ekitaldian Gizarte Zerbitzuen Funtza 20 milioi euroz hornitzen jarraitzea erabaki da berriro ere, prestazio eta zerbitzu sozialen zorroa garatzeko jarduketak finantzatzeko.

2021ko GIZARTE ZERBITZUEN GARAPENERAKO FUNTSA			
FONDO DESARROLLO SERVICIOS SOCIALES 20201			
	%	€	
EUSKO JAURLARITZA	70,04	14.008.000	GOBIERNO VASCO
FORU ALDUNDIAK	29,96	5.992.000	DIPUTACIONES FORALES
ARABA	16,22	971,90	ÁLAVA
BIZKAIA	50,29	3.013,38	BIZKAIA
GIPUZKOA	33,49	2.006,72	GIPUZKOA
GUZTIRA		20.000.000	TOTAL

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 15ean